

IRAKASKUNTZA-GIDA

2022/23

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25932 - Taldeko Gizarte Langintza

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA
DESKRIBAPEN LABURRA:

Irakasgai hau A MODULUAre baitan kokatzen da: Gizarte Langintza: Oinarriak, Metodologia, Teoriak eta Teknikak.

Ikasgai honetan bai modu teorikoan bai praktikoan hurrengo gaiak lantzen dira: Taldeari buruzko oinarriko ezaugarriak. Taldearekiko kidesunaren prozesua, erreferentziaren faktoreak eta aldatzen edo zehazten dituzten barneko eta kanpoko faktoreak. Talde-lana eta lan taldea. Gizarte langilaren rola taldean. Esku-hartze motak, bai autolaguntza taldeetan, bai laguntza taldeetan, bai talde solidarioetan. Lan metodologia taldean. Talde teknika nagusiak. Erakundea: esparru berezia eta garrantzitsua. Erakunde gizarte langintzaren oinarriko aspektuak. Eduki guzti hauek irakasleak eskaintzen dituen kasu praktikoetan aplikazio zuzena daukate. Hauen inguruan ikasleek, taldeka banatuta eta ikasturtean zehar, giza taldeko interbentzio bat garatzen dute.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK
GAITASUNAK:

- Talde motak jakitea eta bereiztea gizarte langintzarako eta gizarte langilearen zeregina jakitea.(CG-1)
- Gertakari, errealitate eta arazo sozialei buruzko hurbilketa, ulertze eta hausnarketa kritikoa egitea, bai izandakoak, bai berriak, gaitasunak garatzeko taldearekiko lantzeko.(CG-1)
- Teknikak eta abileziak jakitea, taldearen bitzrtez lagunen bizi-aukerak bultzateko.(CG-3)
- Taldearekiko esku-hartze motak jakitea; alde batetik, heuren beharrei, egoerari, arriskuei eta baliabideei buruzko erabakiak hartzen laguntzeko, eta, bestalde, prozesuetan eragiteko partaidetza sustatzea.(CG-4)
- Taldearekiko esku-hartzerako proiektuak, programak eta planak diseinatzen, burutzen eta ebaluatzen jakitea.(CG-5)

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK
TALDEKO GIZARTE LANGINTZARA SARRERA

- Taldeko gizarte langintza: definizioa eta helburuak.
- Sorrera eta bilakaera historikoa.
- Taldeko gizarte langintzaren gaurko egoera.

TALDEA

- Taldea: definizioa talde gizarte langintzatik
- Taldearen garrantzia norbanakoarentzat
- Taldea sozializazio eragile gisa
- Talde motak

GIZARTE LANGILEA, TALDEKIDEAK ETA ROLAK

- Gizarte langilearen rol garrantzitsuenak taldean: lidergoa.
- Taldekideen rola: lidergo naturala

LAN METODOLOGIA TALDEAN

- Esku-hartzearen etapak: taldea abian jarri aurretik, garapena eta amaiera (ebaluazioa).

TALDE TEKNIKAK NAGUSIAK

- Teknika motak eta ezaugarriak.
- Talde tekniken erabilpenerako baldintzak.
- Partaidetzarako teknikak.
- Batzarrak egiteko teknikak.
- Soziograma

GIZARTE LANGINTZA INSTITUZIOETAN ETA ERAKUNDEETAN

- Instituzioen eta erakundearen egitura eta eginkizuna.
- Gizarte langilearentzako intereseko elementuak.

PROGRAMA PRAKTIKOA:

1. Eskolak amaitu baino hilabete bat lehenago TALDE LAN bat egin eta entregatu behar da. Lan hau aurkeztu beharko da klase-praktikoen azken egunetan. Talde bakoitzak baztertze arriskuan edo baztertze prozesuan dagoen kolektibo bat, edo gizarte fenomeno berri bat, aukeratuko du eta taldeko gizarte esku hartzeko prozedura erabiliz hurbiltze deskriptiboa egingo du.
2. Klaseko praktikak egin behar dira. Praktika hauen edukia material teorikoarekin batera ebaluatuko da idatzizko frogan.

METODOLOGIA

Irakaskuntzarako modalitate bakoitzean formakuntza jarduerak ezberdinak egin daitezke. Goiko taulan agertzen direnez gain, gaitanuekin bat egiten dutenak, bestelako formakuntza jarduerak kontuan hartuko dira:

- Talde txikietan lan egitea.
- Idatziko lanak burutzea.
- Kasuen azterlana.
- Bideoak ikustea.
- Eztabaida gidatuak burutu.
- Aurkezpenak egin.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5		22,5						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO JARRAIA

- Azken notaren %60: idatzizko azterketa teoriko-praktikoa (teoria eta ikasgelako ariketak/praktikak).
 - Azken notaren %40: Taldeko lana (ezarritako epearen barruan entregatu beharerkoa, eta lauhilekoaren amaieran bere ahozko aurkezpena).
- Beharrezkoa izango da azterketa teorikoa eta taldeko lana, biak gainditzea, azken emaitza izateko eta irakasgaia gainditu ahal izateko.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioaren parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, horretarako, 9 asteko epea izango du lauhilabeteko irakasgaiaren kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita (BOPV, 2017ko martxoaren 13koa, 8.3. art)

"Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egiteko ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete bat lehenago egin beharko dute eskaria. Eskeri hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari (Idem: 12.2 art.)

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea (BOPV, 2017ko martxoaren 13koa, 12.3. art.)

EBALUAKETAN KONTUAN HARTZEKOAK:

"Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea

ere. (Graduko Titulazio ofizialeko ikasleen ebaluaziorako arautegia".

"UPV/EHUn honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkkotzat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan adademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, ignoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazi akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan".

"Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluaziorari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaien kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da"(8.3. art.).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdirako arauak eta prozedurak mantenduko dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Eduki teoriko eta praktikoa gehienak Egelan eskegita daude. Baita klasean landutakoak ere. Edozein kasutan, ikasleen ardura da material horren jarraipena egitea, baita eguneratua izatea.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- ASTRAY, A. A. (2006). Los Estándares para la Práctica del Trabajo Social con Grupos de la AASWG: Presentación, análisis crítico e implicaciones. Acciones e Investigaciones Sociales, (1 Ext), 440-440.
- DOMENECH, Y. (1998): Introducción al trabajo social de grupos. Manual de apuntes, Alicante: Editorial Club Universitario
- FERNÁNDEZ, T. Y LÓPEZ, A (2006). Trabajo social con grupos. Madrid: Alianza Editorial.
- KONOPKA, Gisela (1968): Trabajo social de grupo, Madrid: Euramérica
- LÓPEZ, A (2015). Teoría del trabajo social con grupos. Madrid: Universitas.
- NAPIER / GERSHENFELD (1987): Grupos: teoría y experiencia, Mexico: Ed. Trillas
- ROBERTIS / PASCAL (1994): La Intervención colectiva en trabajo social, Buenos Aires: Humanitas
- TSCHORNE, P. (1990): La dinámica de grupo aplicada al trabajo social. Barcelona: Obelisco.
- ZASTROW, C. (2008). Trabajo social con grupos. Editorial Paraninfo.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- FUENTES, I., & TOLEDANO, L. (2004). Relatos de experiencias de trabajo social con grupos. Trabajo social hoy, (2), 7-20.
- GOBIERNO VASCO (2006): Diagnóstico e intervención Social. Herramienta informática para el Trabajo Social. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco.
- HENRY, S.; EAST, J. Y SCHMITZ, C. (COORDS.) (2004). Trabajo social con grupos. Madrid: Narcea.
- PARRA RAMAJO, B. (2017). El trabajo social de grupo en la actualidad: La utilización de los vínculos para la promoción del cambio social: <http://hdl.handle.net/2445/121897>
- ZAMANILLO TERESA (2008). Trabajo social con grupos y pedagogía ciudadana. Madrid: Síntesis

Aldizkariak

- Revista Cuadernos de trabajo social: <http://revistas.ucm.es/index.php/CUTS>
- PORTULARIA - Revista de Trabajo Social - Universidad de Huelva
www.uhu.es/publicaciones/revistas/portularia
- Revista "Trabajo Social Hoy" - <http://www.comtrabajosocial.com/index.asp?tp=2&pag=pub&sub=prev>
- RUA: Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social - <http://rua.ua.es/dspace/handle/10045/5269>
- Revista de Treball Social, editada pel Col.legi Oficial de Diplomats en Treball Social i Assistents Socials de Catalunya - http://www.tscat.cat/index.php?option=com_content&view=article&id=68&Itemid=168&lang=ca
- RTS: Revista de treball social 2014, Número 201. Dedicado a: La força del treball social amb grups.

Interneteko helbide interesgarriak

CONSEJO GENERAL DE TTSS:
<http://www.cgtrabajosocial.com/consejo/blogotsfera>
International Federation of Social Workers (IFSW):
<http://ifsw.org/>

CENTRO DE INVESTIGACIÓN Y DOCUMENTACIÓN EN SERVICIOS SOCIALES:

<http://www.sis.net/eu/>

THE NEW SOCIAL WORKER - MAGAZINE:
<http://www.socialworker.com/home/index.php>

EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES - GV:
<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

OHARRAK

Akats ortografiko zein gramatikalak egitea edo idazkera desegokia izateak suspentsoa ekar dezake.

COVID-19 dela eta ebaluaketa modu ez presentzian egitea tokatuko balitz, ebaluazio bide jarraia zein ez jarraia burutzen ari diren ikasleei azterketa eGela bidez jarriko zaie, ohiko zein ez ohiko deialdirako aurreikusitako egun eta ordu berdinean. Frogak izaera teoriko-praktikoa izango du.